

MUko GEP, EIDEk ospatu zuen ekitaldian partaide.

2009/07/29

Uztailaren 9an, EIDEk [Euskadiko Industri Diseinatzaileen Elkarteak] bere aurkezpen ekitaldia ospatu zuen Gipuzkoako Bazkundean. Hizlarien artean hainbat esparrutako pertsonak izan ziren: Iñaki Ibarra [GFAko Berrikuntza eta Jakintzaren Sustapeneko zuzendaria], Jon Morán [BAIko zuzendari orokorra], Carlos Garcia [GEPeko I+Gko zuzendaria], Francisco Podadera [diseinatzaile ezaguna] eta Jon Gasca [STUAKo diseinatzaile eta zuzendari artistikoa]. Moderatzaile lanetan Ignacio Sola izan zen, EIDeko zuzendaria.

Jardunaldiaren helburua [erakundearen aurkezpena egiteaz gain] diseinatzaileen lanari dagokion garrantzia ematea izan zen, diseinua berrikuntzaren kudeaketarako erreminta estrategiko bezala ulertaraztea hain zuzen. Honela, bai hizlariak zein entzule gisa hurbildu zirenak [enpresa zein erakundetako 60 bat lagun], ados zeuden honetan, baina, argi geratu zen oraindik ere balio hau gizarteratzeko lanean segi beharra dagoela, hau izanik EIDEn helburuetako bat.

Carlos Garciaren hitzaldian argi gelditu zen azken hamarkadan eskolak Industri Diseinuan egin duen apustua, bai hezkuntza baita ikerketan ere. Gainera MUko GEPak apustua hau indartzeko duen asmoa adierazi zuen. Etorkizuneko erronken artean honako hauek azpimarratu ditzakegu: Industri Diseinuko Masterra edota Diseinu Zentroaren sorrera besteak beste.

